


Hautzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

Urtarrila - Apirila 95 - 1. Zenbakia





SIMULAKRUA? MILAGRUA.

Mila bederatzirehun larogei ta
hamabostgarren urtia
urtarrilaren hogeitalaua
guztiz egun apartia.
Simulakro bat izandu dugu
bizi izateko suertia:
kontatuko dut nola izan den
hain saio importantia.

Sirena hotsak lehen lehenik
eman du nahiko abisua
prest jarri gara gela barnean
ikasle, maixtra ta maisu.
Ordenamendu zorrotza zegoen
edonork esango dizu:
suak betire errespetua
merezi duenez, aizu.

Gauza guziak bere bidetik
txorakeriak utzita
kalera denak atera gara
fila indian jarrita.
Baina batzuek lasaitasunak
dudarik gabe ahantzita:
kilo guztiak jarri dituzte
arinez arin korrika.

Hogei bat urte izango dira
nago pentsatzen jarria,
horren liraina ez da ibili
batzuen batzuen gerria.
Estilo ona ikus zitekeen
alai ta gustagarria:
entrenamendu gehiagorekin
laster da marka berria.

Ondorioak atera leizke
gaurko saioa ikusiz:
arinagoak geundeke denak
ziurrenik mila aldiz;
ta maiatzean erregimenik
ez genduke behar berriz
simulakrorik egin ezker
asteen pare bat aldiz.

Inaxio

IDAZLANA

Alkateari:

Alkate jauna: Oiartzun herri zoragarri hone-
tako herritar bat naiz. Eskutitz honen bidez
zureganaino iritsiko naizelakoan nago.

Herri honi buruz, aipagarri diren gauza bat-
zuk esan nahi nituzke. Hasiera emateko etxe-
bizitza edo habitakuluen eraketa aipatu nahi
nuke.

Herri honetan, gero eta etxebizitza gehiago
egiten ari da. Hau ez deritzot gaizki, etxeetan
jendeak bizi behar duelako, baina hau esplota-
mendu bat da.

Ugaldetxo auzotik hasita, Oiartzungo enpa-
rantzaraino gero eta etxebizitza gehiago egiten
ari dira; Oiartzun ez da lehengo berbera, dena
mendiz betea, dena berde-berde. Beraz, kon-
tutan hartuko delakoan nago.

Beste gauza bati ere indarra eman nahi
nioke: Bide-gorria luzatzearen ideia eman nahi
nuke. Asko atsengin dut, eta askotan ibili ohi
naiz. Jendetza ugari ibili ohi da egunoro, eta
luzatzea ez litzaidake batere ideia txarra irudi-
tuko. Altxibabar auzotik gehiago luzatzeko lekua
badagoenez, ez litzateke gaizki egongo.

Orain polikiroldegiaren txanda iritsi da. Itze-
la iruditzen zait honen eraketa, hau besterik ez
bait zaio falta gure herri kuttunari. Asko atse-
gin dut igeri egitea, eta laster nire herrian egin-
go dudalakoan nago.

Aurrealde eman nahi nioke, beste gauza
finko bati, Superkuartelaren sorrerari hain
zuzen ere.

Gure herri honetan falta zitzaigun gauza
bakarra zera, Superkuartel baten sortarazpe-
na. Nire iritziz beharrezko ez diren gauzak, igo-
rri egin behar dira.


Nire iritziz, Superkuartelaren aurka gogor
egin beharrean gaude, inguru hauetan asko
baitaude, beraz eskutitz honen bidez, herri
zoragarri honetan bizi den herritar baten iritzia
kontutan hartuko delakoan nago, beraz herri
honi falta zaizkion gauzak jarri, eta behar ez
dituen gauzak erantztea espero dut.

OHARRA: Eskutitz honen bidez, jaun bero-
renganaino iritsi eta entrebistatuko garelakoan

nago. Besterik gabe, bihar joango natzaizu hau burutzeko asmorekin, seietan, jaun beror, ikusko garelakoan nago.

Besterik gabe, agur bero bat.

LARRAITZ LASA PEREZ *Andereñoa.*



GOENKALE, ZU GABE HOBE?

Makina publikaziotan, hamaika iritzi izan eta izango dira era honetako teleserieek lortzen duten arrakasta azaldu eta baloratu nahirik. Gaurkoan, berriz, azken modan jarri zaigun Goenkaleren txanda dugu.

Kapitulutan emititzen diren programa hauek, eguneroko jarraipena eskatzen dutenez eta Goenkaleren kasuan euskaldunok identifikatzeko aukera dugunez, engantxe berezia izaten dute. Jarraipen honek, askotan, norberaren eguneroko dinamika programaren pean antolatzea lortzen du; afal orduak edo afal tokia aldaraziz, beste aktibitateak programa ikustearren truke utziaraziz,... Hala ere, eta teknologiarik eskerrak, dependentzi hau murrizteko aukera badugu gaur egun: alde batetik, telebistaren oferta zabaltzean, kapitulu baten errepikapena beste bi momentutan ikusteko aukera dugu: hurrengo eguerdian eta larunbatean. Eta bestetik, magnetoskopio edo bideoaren merketze eta zabaltzeak, kapituluak grabatu eta komeri zaigun momentuan ikusteko aukera eskaintzen digu.

Aipatutako teknika honek, nahiz eta programaren freskotasunean eragin, telebistarenganako dependentzia murrizteko aukera ematen dute. Hau da, ordu eta leku konkretu batean ez egoteko aukera ematen digute, telebista interesatzen zaigun modura antolatuz, telebistak gu menperatu gabe.

Baina, Goenkalek gauza gehiago eskaintzen ditu eta azaltzen saiatuko naiz:

Euskal hizkuntzaren eredu aberatsa eskaintzen du; esaera zaharrak, jiroak, hizkuntz molde ezberdinak, heldu hizkuntza, gazte hizkuntza, euskalkiak,... Drogaren inguruko trataera ere txalotzekoa da, hala "zimaurre" hitza erabiliz, nola alkoholikoen egoera tratatuz. Sexu-harremenen munduko iritzi eta errealitate ezberdinak ere isladatzen ditu, gurasoek beren seme-alabei printzipio batzuk transmititzeko aitzakia eskaintzen duelarik. Bestalde, euskal gizartearen islada burutzen da bertan, euskaldunen izaeraz pentsarazi eta gustora barre egiteko aukera eskeintzen duelarik.

Baina ez da hemen bukatzen, zenbait alderdi negatibo dituela deritzot:

Horrelako serie bat finantziatzeko beharrezkoa gertatzen den bezala, publizitatearen beharrean aurkitzen da eta publizitate estatistikoz betea azaltzen zaigu: Entziklopedia, banketxe, ur mineral, kafe, egunkari, marka ezberdinak "salduz". Burutik pasa al zaigu era honetako publizitate hurbilak (bertako produktak) adin ezberdinetako teleikusleengan izan dezakeen eragina? Teleikusle guztiek ez ditugu publizitatearen aurrean defentsa berdinak!

Azkenik, zalantza eta kezka gehien sortarazten didan aspektua aipatu gabe ez nuke utzi nahi. Telebistako programa guztiek bezala, Goenkalek errealitate eta fikzioa nahasten ditu. Bertan gertatu ohi diren zenbait gertakizun errealitatean topa genitzake eta beste batzuk fikziozkoak dira. Eta nork ziurta dezake, programarekiko dugun identifikazio graduaren arabera, edozein teleikusle bertako fikzioa eta errealitatea bereizteko gai izango dela? Superman pelikularen fikzioa bereizi ez zuen haurren gertaeraz ez dira urte asko izango. Nolakoa da teleikusle bakoitzaren babesa Goenkaleko Karlosen paperean ez sartzeko? Errealitatea eta fikzioa nola bereizi?

Hemendik aurrera, saiatu dadila bakoitza haseran aipatutako galdera erantzuten: GOENKALE, ZU GABE HOBE?

Josu Arozena



HAURTZARO INFORMATZEN

PROSA-POESIA LEHIAKETA

Oiartzungo Udalak antolatutako herri mailako 94/95 ikasturteko Prosa-Poesia lehiaketan, Haurtzaro Ikastolako L.H.ko 3. mailatik BBBko 3. maila arterainoko ikasleek parte hartu dute.

Aurkeztutako lanen kalitateak epai mahaiari benetako lana eragin diola pentsatzen dugu sarien izendaketa/banaketa egiteko garaian. Emaizta ikusi besterik ez dago.

Prosan banatutako 15 sarietatik 11 Ikastolako ikasleek eskuratu dituzte, eta 3 aipamen berezietatik hirurak lortu dituzte. Poesian berriz, banatutako 9 sarietatik 7, eta 2 aipamen berezietatik biak, gure Ikastolako ikasleentzat izan dira.

Zorionak parte hartu duzuen ikasle guztioi, garrantzitsuena parte hartzea bait da. Horrela jarraitu!!!



OIARTZUNGO AZOKA HERRIKOIA

Dakizuen bezala, Haurtzaro Ikastolaren helburuetako bat Euskal Kultura eta ohiturak ikasleei ezagutarazi eta ahal den mailan berreskuratzea izanik, Oiartzungo azoka herrikoian Ikastolak aktiboki parte hartzen du.

Honetarako plangintza bat egin ondoren, maila guztietako ikasleen lanak, txandatur, bertaratzen ditugu; zenbait lan erakusketa gisa, eta besteak salgai jarriaz.

Orri hauetatik zorionak eta animoak eman nahi dizkiogu ohitura hau berreskuratzeko lanean ari den taldeari.

LARRIALDIETARAKO PLANA

Aurtengo ikasturtean Ikastolan "larrialdietarako plana" burutu eta honen inguruko lehenengo esperientzia bizi dugu.

Plan honen helburua, ikastetxean gerta daitekeen edozein larrialdiren aurrean, bertako partaide bakoitzak bere zeregina zein den garbi edukitzea da alde batetik, eta bestetik guztiongan egoera posible baten aurrean jarraera egokiak lantzea; edozein lekutan larrialdiren bat gertatuz gero, norberaren kontrola mantentzeko gai izatea da lortu nahi dena.

Honetarako itxurazko egoeren aurrean, jarrerak lantzen joango gara, ikasle guztiekin.

Aipamen gisa, egin dugun lehen sute simulakroan, abisoa emateko sirenak jo ondoren 7 minututan eraikuntza guztieran hustuketa, eta ikasle guztien kontaketa eta kontrola burutu da.

Lehen aldia izateko oso denbora ona omen da!

SANTA AGEDA BEZPERA

Aurtengo ikasturtean ere, Santa Ageda bezperan abesten ateratzeko ohituta gal ez dadin, mailaz maila entsaio dexente burutu da. Egun seinalatu hau larunbata izan denez, ostiral arratsaldean Ikastolako Anfiteatroan entsaio orokor bat egin da, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta OHOk 8. maila arterainoko ikasle guztiekin.

BBBko ikasleak berriz, taldeka, ohitura zaharrak mantenduz Otsailaren 4ean atera ziren etxez-etxe kantari.

HAURTZARO INFORMATZEN



KORRIKA

Dakizuen bezala, KORRIKA 9 Oiartzundik pasatzeko bezperan, Huartzaro Ikastolako eta Elizalde Eskolako ikasleek elkarrekin Korrika Txikia egin zuten Oiartzungo auzo gehienetatik pasatuaz: Beheko Plaza - Oiartzungo Enparantza - Tolarieta - Ugaldetxo-lturriotz - Altzibar - Belutene - Oiartzungo Enparantza.

Hasera 3 urteko haurrek eman zioten, eta 8. mailakoek bukaera. Ondoren AEK-ri esker, txokolate goxo-goxoa hartu ahal izan genuen.

Bestalde, aurtengo 9. Korrikan Huartzaro Ikastolak, Elizalde Eeskolarekin batera Kilometro bat erositaz, bere laguntza sinbolikoa eskaini dio euskarari.

Zorionak hemendik AEKri, bai Korrika Txikian eta Korrikan ere izandako antolaketa eta arrakastagatik.



HAURTZARO INFORMATZEN




1HAUTERIAK 95

Eguraldia lagun izan ez baguenen ere, aurtengo 1hauteriak festa giro polit batean ospatu ditugu.

Irakasleen eta ikasleen ilusio eta imajinazioa alde batetik, eta gurasoen laguntza bestetik uztartu dira aurtengo egun honetako antolaketa aurrera ateratzerakoan.

Haseran adierazi bezala, eguraldia benetan desegokia izan zen egun hau ospatzeko; arrazoi honengaitik herrian zehar egiten dugun desfilea egitera ez ginen ausartu (batez ere Haur Hezkuntzako ikasleengatik), baina honen ondoren antolatua genuen jaialdia aurrera atera zen. Bertako giroa ezin hobea izan zela deritzogu.



GURASOENTZAT TAILERRAK

Ikasturte honetan gurasoei bidalitako partaidetzaren inguruko inkesta baten ondorioz, bi talde sortu dira iadanik gurasoentzat tailerrak, edo ekintza ezberdinak antolatzeko.

Talde hauek, horrelako lan bat egin nahiean dabilzan guraso batzuk osatzen dituzte, eta momentuz jorratzen ari diren aukerak hauek dira: aste buruetan, larunbata edo igandea zehaztu behar da, mendiko irtenaldiak antolatu nahi dira guraso eta ikasleentzat alde batetik, eta bestetik gurasoentzat tailer ezberdinak, ikastaro modura. Ideia batzuk atera badira ere, saiakera honi azken forma eman nahiean gabiltza.

Lerro hauetatik, gurasooi nagusiki antolaketan edo ondoren ekintza hauetan parte hartzerantz animatzen zaituztegu.

Eta saiakera hau egitera animatu zareten gurasooi, zorionik beroenak eta aurrera jarraitu!

IKASTOLA EGUNA 95

Martxoaren 26an ospatu du Ikastolak bere aurtengo IKASTOLA EGUNA. Eguraldia lagun izanik, antolatutako ekintzak modu egokiz aurrera atera ziren. Ikasleen emanaldi bat: dantza, abesti, antzerki, ikusi ahal izan genuen bertara gerturatu ginenek.

Egun hau aukeratu zen Izaskun Zubeldia irakasleari, Ikastolan eta irakaskuntzan 25 urte betetzen baititu aurtengo omenaldi txiki bat eskaintzeko.

Ondoren, bazkaria eta pailazo emanaldi batekin eman zitzaion bukaera Ikastolaren egun honi.

(Hurrengo zenbakian gai honi atal berezi bat eskainiko zaio).

HAURTZARO INFORMATZEN



XIII. LEXOTI JAIALDIA ETA VI. LEXOTI BERTSO PAPER LEHIAKETA

Joan den ostiralean, hilak 29, arratsaldeko 2'30etan, Ikastolako gela nagusian bertso jaialdi bat ospatu zen.

Lehenik, Ikastolako bertsolari gaztetxoek bertsoan ihardun zuten. Bertsolariak hauek izan ziren: Iker Irigoien, Andoni Gaztañaga, Eneko Salaberria, Eneko Ezeiza, Jon Martin, Iker Goya, Zuhaitz Lizarralde eta Igor Olague.

Jaialdiari bukaera emateko, VI. bertso paper lehiaketan sarituak izan diren lehenengo hiru ikasleek, beraien bertsoak abestu zituzten. Lehiaketa honetan 7. eta 8. mailako ikasleek hartu zuten parte eta sarituak honoko hauek izan ziren:




1. saritua: JON MARTIN, 8.maila
Gaia: ITXAROPENA
2. saritua: IKER GOYA, 8. maila
Gaia: GERRA BATEAN NAGO
3. saritua: IRAIA ETXEBESTE, 8.maila
Gaia: EUSKAL HERRIA GURE ABERRIA.



Jaialdi honetako gidari eta zuzentzaile Iana Karlos Aizpuruak bete zuen.

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN



IPUINAK

Ipuinak, dibertitzeko fantasiazko kontaketak izatez gain, umeez beren bizitzan zehar aurkitzen dituzten barne arazoen erakusgarri ere izan daitezke. Bertako pertsonaia eta egoera ezberdinek beren izakera ulertzen eta garatzen laguntzen diete haurrei.

Diotenez, sutondoan neguko gau hotzetan aiton-amonak kontatzen dituzten ipuinek gordetzen dute zorientasunerako giltza. Batez ere, zenbait haur baldin badaude inguruan jarririk.

Esan ohi denez, begiak itxita irudikatzen den misteriozko mundu horretan murgiltzeko talismanik onena aitaxo eta amatxoek oheratzeko garaian kontatzen dituzten ipuinetan dago gordetik, batez ere, dagoeneko oheratuta bazaude eta bukatzerako loak hartzen bazaitu.

Ziurtatzen dutenez, goizez zein arratsalde edo eguerdiz, zure zorionerako, ipuinak kontatzen dizkizun maixu edo andereño bat baduzu, eskura izango duzu mundua deskubritzeko, besteak ezagutu ahal itzateko eta baita, are zailagoa dena, zure barruan dagoena ulertzeko ere formula zoragarria.

Teseori umetan ipuinak kontatu izan balizkiote, ziur izan berehala aurkituko zukeela laberintotik ateratzeko modua. Ipuinak horixe baitira: zure aurretik bizi izan diren guztien jakituria gordetzen duten formula majikoak. Horregatik, askok baieztatzen dutenez, bihotzarekin ulertu badituzu, gauza izango zara zure bizitzan zehar aurkitu zenezakeen edozein eragozpeni aurre egiteko, hau da, hasierako bidea besterik ez den bizitza horretan -jaiotako egu-

nean hasi eta, mosntruoa garaitu ondoren helduen munduan bizitzan ausartzen zareneko egunean bukatzen den (bizitza) horretan- topatuko duzun edozein arazo gainditu ahal izango duzu eta....

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan.

Gero, handitzean bestelako bat hasiko da (?)

Baina hori beste kontu bat da.

ETA.... NONDIK HELDU ZAIZKIGU?

Ipuinek, mitoez bezala, herri bakoitzaren kultur esentziarik sakonenean dute bere jatorria.

Ipuinak izan dira, orain urte batzuk arte, umeei zein balore eta arau etiko eta sozialetara egokitu behar zuten erakusten zietenak, hau da, jaio ziren herriko berezko kultur tradizioak erakusten zizkietenak.


Horregarik dira gureekiko hain desberdinak ipuin txinatar, arabiar, hinduak...., kultura bakoitzak desberdinak dituelako sinismenak, erlaziorako moduak, famili egitura, ohiturak.... elkarrekin hartuta unibertso sinboliko desberdinak osatzen dituztenak, alegia.

Ipuinak, erraz gogoratzeko kontaketa laburrak direnez, ahoz transmiti zitezkeen gurasoengandik seme-alabengana edota, hobeto esanda, aiton-amonengandik bilobengana (hauek baitziren istorioak kontatzeko denbora gehiago izaten zutenak).

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK IPUINAK?

Neskato-mutikoek ulertzeko moduko kontaketak direlako.

Ipuinak, pertsonaia eta egoera oso zehatzak



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN


lengoaia sinboliko batez erakusten dituenek, hau da, kontraesan eta balio bikoitzik gabe (on-gaiztoak, eder-itsusiak...) bat egiten du umearen elaborazio mentalarekin, beti oso parametro zehatzen bidez egina dagoena, non haurra bera den ardatz eta gauzek bizitza berezkoa duten.

Ipuinek ez dituzte gatazkak, intrigak, espero ez diren egoerak, naturaren prozesuak, etab. bakarrik erakusten; horretaz gain, haurren beldurrez, segurtasun ezaz, errezeloez, gorrotoez hitzegiten digute, haurrek sentitzen dituzten gauza hauek guztiek sentiarazten dituzte errudun eta aintzakotzat ez hartuak. Ipuinak, egoera eta pertsonaia horietan identifikatzera eta proiektatzera laguntzen die, amaiera zoriontsuak askapen eta barne lasaiatasun bat suposatzen du, ikaskuntza posible batez gain.

ZEIN ERATAKO IPUINAK DITUZTE NAHIAGO NESKEK ETA MUTILEK?

Haurrek heldu batek kontaturiko edozein kontaketa, istorio, fabula edo kontu entzutea dute gustoko.

Baina ipuin klasikoak dira behin eta berriro errepikarazten dizkigutenak, lehenengo aldiz kontatu genien bertsiotik hitz bat bera ere aldatzen uzten ez digutelarik. Honen zergatia, denbora asko behar izaten dutela ipuinaren misterioak atzemateko, eta gainera, beti deskubritzen dituzte gauza berriak bere heldutasun mailaren arabera. Kontaketan ez dauden gauzak -beti berdina den kontaketan-, baizik eta gordetzen duen sinbologian edo egiten duten interpretazioan daudenak, zeren eta nahiz eta egun printzesak ez hain babesgabeak izan, ez eta printzeak hain adoretuak, ez eta sorginak hain maltzurak... ez eta otsoak hain beldurgarriak ere (seguruenik desagertze-ar daudelako)... hauen guztien esanahi sakona oraindik baliagarri baita.



Hau dela eta ipuin klasikoak ordezkaezinak dira gure haurrentzat, zeren, nahiz eta garaia aldatu izan, xarmak eta majiak beste sasoi batzuetan bezala oraindik ere liluratu egiten baititu.


Haur munduan oso preziatuak diren beste ipuin batzuk, herri tradizioaren erretolika, aho-korapilo, abesti etabarrez gain, helduak harian harian asmatzen dituenak dira.

Hauen balio nagusia barnean daramaten karga afektiboan datza. Ipuin bat asmatzeko haurrek ulertzen duten lengoiaren bidez komunikatzea suposatzen du, eurei denbora bat dedikatzea, euren gustotara egokitzea, une hori zerbaite erakusteko aprobetxatzea.

Irudiz edo testu sinpleegiez egindako ipuinak interesgarriak izan daitezke helburu pedagogiko bat ematen bazaie. Bestela, hobe gaurko kontaketak edo klasikoak bilatzea, non hitzen iradokigarritasunak errimen sonoridadearen lilurapenak edo edukien erakargarritasunak gure hurrei beraien imajinazioan murgiltzeko aukera ematen dien; hortik, euren buruak, besteak eta inguratzen dituen mundua ulertzera iritsi ahal izan daitezen.

Ipuinak kontatzea pribilegio bat da, eta neskek eta mutilek uneoro eskatzen duten magia-aren, eta sorpresaren aseintasunari egunero aurre egiten diogunontzat erronka bat.

Ipuinak kontatzeko, ahots inflexioak eta doina zaindu behar ditugu, arrazoirik edo moraljarik bilatu gabe, hitzen beraien xarma izan dadin haraino garraiatuko dituen, beraien imajinazioak uzten dieneraino.





HAURTZARO CITY'S REPORTERS.

We are a group of students from Haurtzaro school and this time we choose Haurtzaro school and interviewed some students and teachers of BBB about English language, culture and so on.

H.C.R: WHAT DO YOU THINK ABOUT ENGLISH LANGUAGE?

MIRARI LIZASO (student of BBB1): English language is beautiful for me because it is easy to understand and you can learn a lot.

ALEX (student of BBB1): I like it very much.

ITXASO (teacher of English in BBB): English language in general? Well, I think it is very very important if you want to travel and communicate with other people from other countries and it is the business language as well. And, of course, if you want to read books written in English, I think it's great. Well, I like music and if I know English is better for me because I can understand the lyrics of the songs.

HELENA (teacher of Spanish language in BBB): I think it's simple. English grammar is not complicated, it is quite simple, if you compare it with some other grammars like Basque, Spanish or French grammars, it is easier. The problem for us, Spanish or Basque speakers is pronunciation. We won't normally lose our accent unless we live or study there.

H.C.R: ARE YOU INTERESTED IN ENGLISH PEOPLE?

MIRARI: Yes, because I want to meet people from England and I want to talk English with them.

TELMO (student of BBB1): No, I don't like them.

HELENA: Yes I'm. (**H.C.R**): WHY? When you learn a language you don't only learn grammar and such things, you also learn about people, about, films, actors, songs, customs, people in general, so I'm interested in English people as an English learner.

H.C.R: HAVE YOU EVER BEEN TO AN ENGLISH-SPEAKING COUNTRY?

ALEX: No, I never have, but I'd like to go.

SILVIA (student of BBB2): Yes I went to New York last summer. I had a great time. New York is a beautiful city and I'd like to go again.

ITXASO: Well, I've never been to England but I used to go to Ireland (Eire) every summer, (to Dublin) to study and to practise my English. I went to New York once, to Syracuse and I spent about

two months there, well, I had a great time.

HELENA: I've been to England (in Plymouth, Bournemouth, Exeter and London) and I have also been to Ireland. I've been there learning English, and as a tourist I've been to Holland with the students of BBB3. I've been to Norway, Sweden, Denmark, Italy and France.

H.C.R: DID YOU HAVE A BOYFRIEND? COULD YOU TELL US SOMETHING ABOUT IT?

ITXASO: Oh! Yes. I had one in Dublin, he was from the south of Dublin from a place called Wicklow. He had long red hair.

HELENA: Not only a boyfriend but some boyfriends. I don't remember very well, it was a long time ago.

H.C.R: WOULD YOU LIKE TO GO AGAIN?

ITXASO: Not to Dublin, well, last year I went to Edinburgh and I liked it a lot so I'd like to go to the North of Scotland and travel around the islands.

HELENA: Yes of course, but I would prefer to go to Scotland now, because I've never been there and I've been told that it is a beautiful place.

H.C.R: IS EASY OR DIFFICULT TO LEARN ENGLISH?

ALEX: English is very easy to understand and to learn it.

ITXASO: Well, for me it hasn't been very difficult, maybe, the most difficult thing it would be listening; I mean grammar, verbs are very easy perhaps the most difficult thing is to understand the way they speak, their accent.

HELENA: Not too difficult, you know I like languages and learning languages is a hobby for me. I don't take as something I must do, I like it.

H.C.R: DO YOU THINK YOU CAN CONSIDER IT AS A WORLDWIDE LANGUAGE?

TELMO: Yes, because a lot of people speak it in the world.

HELENA: Yes, sure, of course. You will be able to communicate with other people only if you speak English; for example, you are going to Holland next May and you are not supposed to speak Dutch (the language of Holland), so you will have to speak English. If you don't speak English you will be quite lost. When you have to buy something or ask for a place you will have to speak English.

ITXASO: Yes of course, I think it is the international language for business, music and everything.


H.C.R: IS ENGLISH USEFUL TO FLIRT?

MIRARI: No... well I don't know!

ALEX: Yes because I met my love speaking English.

HELENA: Very useful. You won't get an English speaking boyfriend if you don't speak English. If I were you I'd study very hard to get a boyfriend.

THANK YOU VERY MUCH.



HAUR HEZKUNTZA


Aldizkariaren sekzio hau aprobetxatuaz, haur Hezkuntzako maila bakoitzean burututako lan bat aurkeztu nahi dizuegu.

Zenbaki honetarako bi gai izan dira aukeratuatakoak: 3 eta 4 urtetako haurrek Ihauterien gaiarekin egindako adin bakoitzeko lan bat, eta 5 urtetako haurrek, Etxea eta Familia gai bezala harturik burututako lanaren adierazgarri bat.

HAUTERIAK 3 URTETAN: TXANOGORRITXUak

Ihauteriak zirela eta mozorroa aukeratzekoan, haurrak dakizkiten teknikak erabiliaz mozorroa osatzeko moduko bat aukeratzen dugu beti.

Abiapuntua hau izanik, TXANOGORRITXUz mozorrotzea erabaki ondoren, saskiak nola egin pentatu eta lanean hasi ginen; hona hemen honela egin zituzten Txanogorritxuren saskiak:




Lehenik, tenpera erabiliaz, bakoitzak etxetik ekarritako zapata kaxa margotu zuen.




Ondoren, puntzoiaz, saskia apaintzeko loreak eta hostoak zulatu eta moztu.



Jarraian, kola erabiliaz, loreak eta hostoak kolatu eta saskian itsatsi; saskia apaindu.



Hemen duzue egindako lanaren emaitza.



4 URTEKO IKASLEAK IHAUTERIAN.

Ikasleak ihauteri giroan sartzeko astebete erabili genuen. Azken astean sartu baino lehen, mozorroak aukeratu genituen; materiala eta abestia prestatua izanik ordurako.

Mozorroak aukeratzeko garaian, eta haurrak motibatu zitezen, irakasleok "Edurnezuri eta zazpi ipotxak" ipuina erabili genuen. Honetarako ipotxez mozorrotu ginen haurren erreakzioa ikusteko; beren jarrera oso ona izan zen.

Gure hurrengo urratsa jantzia aukeratzeari izan zen eta behar genituen materialak biltzea. Honetarako gurasoen laguntza izan genuen, beraiek ekarri bait zituzten aizkorak egiteko kirtenak.

Honekin batera dantzaren entsaioekin hasi ginen.

Bi helburu izan ditugu denbora honetan: jaiak girotzea, eta material xehea erabiliz

HATZAK BETE LAN

mozorroak egitea. Kartulina, zabor boltsak, makilak, pinotxo papera, zintzarri txikiak, leotardoak eta galtzerdi zaharrak izan dira erabilitako materialak.

Mozorroen prestaketa, arratsalde batean etorri eta gurasoek egin zuten. Bitartean, giroketa prozesuan pasiloaren apainketan sartu ginen; eskulan diferenteak egin ziren honetarako: kareta, antifazak, kukurutxoak...

Bukatzeko, gure eskerrik beroena eman nahi diegu mailako guraso guztiei, gure proiektuan parte hartzeagatik, bai prestaketan eta baita jaialdian ere.

MILA ESKER!!!!


5 URTEKO IKASLEAK

"ETXEA-FAMILIA" gaia izanik, norberak bere etxea egitea proposatu genuen irakasleok; eta horretarako kartoizko kaxak ekarri zituzten.

Ondoren osaketari ekin genion: atea eta leihoak zulatu, kristalak, kordinak, tximinia, teiatua e.a. jarri, etxe ingurua apaindu,...

Eta hau da emaitza. 5 urteko haurrak izanik, ez al dira etxegile iaioak!!!





MANER DOKTOREA

Ilea marroia du zuhaitzaren enborra bezala eta motza.

Ilean zorriak ditu eta bareak txingurritegi bat ematen du. Begiak urdinak itsasoa bezala eta itsaso horretan txalupa bat dago beltz beltza.

Begi txikiak ditu txorroskiloa bezala.

Sudurra haundia, patata bat dirudi eta patata horretan bi kobazulo daude eta kobazuloen barruan martziano txikiak.

Aho haundia du orrazi bat bezelakoa eta ahoaren barruan hortzak ditu, harriak dirudite; sugearen mingaina du ahoan; beso txikiak hosto txiki bat bezalakoak, besoetan benenoa du kaka kolorekoa.

Uhondokoak behiaren ipurdia dirudi.

Tripa txikia du, eltxetxo bat ematen du; eta tripan soinua entzuten da, diruaren soinua. Beti gona jazten du monjeak bezala.

Tirita asko ditu Doña Dolores bezala.



3. mailako ikasle batek

"EUSKALGORRITXU"

Bazen behin Euskalgorritxu izena zuen neskatxa bat. Bere amak esan zion:

- Zoaz amamarengana eta eraman iezaizkiozu zortzi euskalkien otartxoa gaixorik bait dago!

Euskalgorritxuri, etxetik atera aurretik, amak ohartarazi zion:

- Erne basoan! Gaztelerotso jaunarekin topo egin zenezake eta zure ama hizkuntza lapurtu nahiko dizu.

- Ongi! Ongi! -esan zuen Euskalgorritxuk.

Euskalgorritxuk bidea jarraitu zuen. Bidetik zihola Gaztelerotsorekin topa egin zuen eta esan zion:

- ¿A dónde vas Euskalgorritxu?

- Amamarengana noa.

- ¿Y qué llevas en esa cesta?

- Zortzi euskalkien otartxoa daramat.

- ¿Por qué camino sueles ir?

- Ni hortik noa.

- Pues el otro es más corto.


- Eskerrik asko Jauna!

Gaztelerotsok gezurra esanez, bide luzeago batetik bidali zuen. Gaztelerotso amonaren etxera iritsi zen.

Eta zer gertatu zen??

Euskalgorritxuren kontazikun hau nahiko ondo bukatu zen, nahiz eta Gaztelerotso bere nahi batekin gertatu. Baina hala ere zortzi euskalkiak oraindik hor daude!

6.mailako ikasle batek



Jon Martin, 8C.. Izengoitia: Mozorro
Doinua; Amurizarena. 1. saria.

ITXAROPENA

- 1 Ta bazoaz ihesika
zure atzetik segika
joango bait naiz korrika
mendi, ibai nahiz karrika
ni maitatuko nauzun eguna
iritsiko da apika
badut egun hau iritsiko den
esperantza ta irrika
zoritxar denak pozak baitira
zu aurrean ikusita
gau ilunean baldin badago
izar xarmat bat nir-nika
haren argitan isladatzen da
zure irripar polita.
- 2 Zoratu nau maiteminak
ta zureganako grinak
nahiz egin ahaleginak
zu inoiz aztu ezinak
gertatu arte ez da jakiten
sortu ditzakeen minak
zureganako sentimenduak
dirade mugaezinak
iada benetan nazkaturikan
nauka bizitza saminak
zure begiak: zoragarriak,
lirainak eta urdinak
begiratuaz ikus ditzaket
itsasertzeko uhinak.
- 3 Naturako hoberena
batean bildurik dena
zure irripar gorena
munduko gauzik onena
zureganako maitasun ga
beteta daukat barrena
irten ezker edozer gauza
kiskali dezakeena
hitzegiteko zure aurrean
pasatu ohi dudana mena
nondik bilatu nola aurkitu
ez pasatzeko hemena
hitzez egin da adierazi
zu niretzako zarena
zire begiek ikusi duten
paisaiarik ederrena.
- 4 Bihotza jarri zait minez
tristuraz dabil negarrez
ia lehertu beharrez
gorputzarentzako kaltez
honek txit errez hazitu ohi du
baina jarein berriz ez
nireganako maitemin eza
ezin da konpondu errez
egi-egitan esaten dizut
desiratzen zaitut zenez
nire zainetan Euskaldun jator
odola pasatzen den lez
nik zin dagizut ez zaitudala
maitatzen utziko errez.
- 5 Ez itsusi ez baldarra
ez da batere zatarra
gerria dauka meharra
gauza honak barra-barra
zango lirainak, ahots xarmanta
burutsu eta azkarra
ezpain ederrak, itxura ona
fama ez duzu kaxkarra
zerotik hamar eskala hortan
gutxiegi da hamarra.
Egunez nire eguzkia da
ta gauez nire izarra
mundu honetan aurkitzen dudana
bizi arrazoi bakarra.

Iker Goia, 8B.
Doinua: Begira nago jarria beraz
Izengoitia: Cupido
2. saria.

GERRA BATEAN NAGO


- 1 Hainbat gaztetxo, zorigaitzeko
hainbat familietako,
gure albotik joanak dira
gerra hontan betirako.
Odolaz eta tiroz iadanik
jarri behar gara bapo
sarraski hau zertarako?(bis)
Ogola eta hondamendia
hementxe dugu lagako
hiru gizontxok lur puska baten
kapitxoa dutelako.(bis)
- 2 Nahiz ta pentsatu:"itxaropena
ez ezazu galdu mutil,
behingoz pakea lortuko dugu
eguna baitagi hurbil",
ezin ninteke inolaz egon
heriotzaren zain trankil,
nigandik gertu baitabil.(bis)
Ikaratuta ta aurpegia
orain daukadala zurbil
gehiago baten eskubideak
defendatzen behar naiz hil.(bis)

HATZAK BETE LAN

3 Nahiz ta munduan pakezaleak
izan pertsona ugari
eta guztien beraien nahiak
era garbian ageri.
Bada hitzatzat ekintzaraino
urruntasuna nabari
hargatik hitz hauei adi:(bis)
gerra guztitan agertu dira
tamalez zenbait heiztari
eta tiro bat eman diote
bakearen usoari.(bis)

4 Gerra zital hau, hain da krudela
hain da ikaragarria,
begiak malkoz beteta dauzkatz
hauze ikusten jarria
ez da batere bidezkoa, ez,
hemengo infernu gorria
sekulakoa neurria.(bis)
Konturatu naiz ikusis jende
honen momentu larria,
edozein umek zuhaitz txikiei
ken diezaieke horria. (bis)

Iraia Etxebeste
Doinua: Egañak finalean erabilitakoa
Izengoitia: Aiari
3. saria



3 Zelda barruan ehundaka presok
diraute egun guzia,
egoera hau isil mantenduz
nahi dute sartu ziria.
Baina guk ongi bereizten dugu
gezurra eta egia,
ezin saltatu hesia,
ezin da hautsi herria,
ez ta gure lokarria;
belaunalditik belaunaldira
igaro da bizia
urtetik urte borrokatzeko
eraiten dugu hazia.


4 Errefugiatu, gartzelatuak
munduan anitz pertsona,
sendiakoak gau ilunean
patxadan ezin egona,
ta emazteek aldamenean
ezin eduki gizona,
inolaz ez dugu ona
hauen triztura sakona
ta kanpoan gaudenona.
Argi ta garbi arazo oro
da noski gu guztiona,
hala ere noizbait helduko zaigu
bihotzera zoriona.

5 Oihu borroka, ta matxinadak
dira nagusi kaletan,
gure presoek senti dezaten
laguntza beren zeldetan;
indarra eman dieziegun
jarraikitze horretan,
merezi dute benetan
eta ez egon penetan
parte hartu ekintzetan.
Denok borroka dezagun bada
leku ta txoko denetan,
gure eguna iritsiko da
sinets ezazu honetan.

EUSKAL HERRIA, GURE ABERRIA

1 Euskal herriko egoera da
benetan tamalgarria,
gudari asko borrokan daude
defendatzeko aberria.
Jopioez eta milaka tgaueze
mutu nahi dute herria,
ez da batere berria,
ze jokaera zerria!
ta gauza lotsagarria!
Baina etsaiak ez du lortuko
guri kentzea irria
ez dugu etsiko ase arte
askatasun egarria.

2 Gure "anai" bat hiltzen denean
abertzaleon samina,
eta gorrotoz pentsatzen dugu
hau dela joku zikina;
hau gertatzean sentitzen dugu
euskal-askatasun mina,
hauze da lortu ezina
ta borrokarako grina
herriaren ahalegina.
Gauza hauekin haiek diraute
areagotzen sumina
baina ez dute deuseztatuko
guk orain arte egina.



Urtarrilak 22, 1995.ean

Desesperatua dagoen bat, mutilez josita dabilen bati.

Kaixo neska puska hori:

Zer moduz? Inguratuta bai behintzat, ezta? Baina berdin zait, nik aspaldi ikasi nuen, otso batek otso emea lortu nahi badu, beste otso batzuekin borroka egin behar duela, eta nik badakidanez gu bata bestearentzako eginak garela, ez zait piperrik ere axola zu beste mutilen batekin ibiltzea, azkenean bai baitakit nire eskuetara eroriko zarela, beraz....

Harri batek ere, gu elkarrekin ikusita, "zein bikote aparta!" esango luke.

Ni...badakizu...."cola-caó"-a izanda ere, beti zure esneetan egongo nintzatekeela, zure barnean murgilduz, eta zure hondora jausiz.

Begira...nik, poesia erromantiko eta horrelako memelokeriarik ez dakit egiten, ni...badakizu beti harira joaten naizela, eta hariaz hitzeginez, badakizu zer egingo nukeen nik hari pusketak batekin? Gure arteko maitasuna hartu eta zure bihotzean sartuko nuke, nik nirean bai baitut nahikoa maitasun bestela ere, eta zure bihotzean gure arteko maitasuna sartuz gero, lehen hitzegindako hariaz josiko nuke.

Zertaz ari nintzen? A bai!, jope!, ahaztu zit-zaidan, ni beti harira joaten naizela esaten ari nintzaizun, eta ez dakidala poesia erromantiko eta horrelako memelokeriarik egiten, nik gauza bat dakit soilik, maite zaitut eta punto! Zertarako hitz gehiagotara luzatu amodioa, poesia horiek "Markesaren alabaren" olerkia baino latosoagoak dira eta...

Beno, baina horrelako poesiarik egiten behin hasiz gero, ez dakit asko kostatuko lit-zaidakeen, begira, hemen duzu adibide bat:

Gu, bi mendi desberdinetako larrosak izanda ere, nik beti aurkituko zintuzket, nahiz haize bolada batek bultzata, nahiz eta nire kabuz joan, bertan burutuko genuke gure bizitza, bertan biztuko litzateke gure arteko pasioa, bertan

etengabe maitatuko genuke elkar, bertan elkarrekin botako genituzke gure sustraiak, bertan gure gauzez hitzegingo genuke, bertan gure pentsaerez egingo genuke berbatan, bertan gure sentimentuak adieraziko genituzke atseginenez, gu biok bakarrik, gu biok soilik, gu biok munduaren zentruan, gu biok munduaren erdian.

Zer iruditu zaizu? Ez dago batere txarto ezta?. Ahalegindu naiz zure bihotza hunkitzen.

Eskutitz hau, zugatik pentsatzen dudana adierazteko da, jakingo zenuen, ezta? Jadanik hainbeste bidali dizkizut...

Zuri begirunea dizun mutil bat naiz, ez dizut esango zein naizen, komeni ez zaidalako, gero, ikustean, ez dut nahi inpresio txarrik eramaterik, ez dakizu zein naizen fisikoki, baina badakizu nola naizen izaeraz, maite zaitudala alegia.


Muxu bat, erantzun iezadazu, Kattalin.

Zurekin egon eta sartzen zait
bihotz barrenean hotza
eta zurekin nagoenean,
ez dut nahi geratu motza,
zure maitasun horretan dakit,
naizela guztiz arrotza.
ez naiz batere zorrotza,
galdu egiten dut ahotsa. (bis)
Nahiz (e)ta zurekin nagoenean,
sentituko dudana lotsa,
zu zara nire belar urria
jan dezakeen bildotsa (bis)
(Bertsoa, 7-ko puntuan)
(Doinua:Leiho hertzetik begina nago..)

1. BBBko ikasle bat

NAHASTE-BORRASTE

haur jolasak



Margo ezazu goiko irudia. Kontuan hartu zenbaki bakoitzak kolore bat adierazten duela:

- | | | |
|-------------|-----------------|-----------------|
| 1.- Gorria | 3.- Berdea | 5.- Urdin argia |
| 2.- Marroia | 4.- Urdin iluna | 6.- Grisa |

haur jolasak


2	4	6	8	.	12	14
3	6	9	.	.	18	.
1	2	4	.	16	.	64
0	10	20	.	40	.	.
5	10	15	.	25	.	35
.	2	.	4	.	6	.
.	10	.	20	.	30	.
0	.	10	.	20	.	30
6	12	.	48	.	.	.
4	7	.	13	.	19	.

Zeintzuk dira lerrootan falta diren zenbakiak?





haur jolasak

Zein da
gure
panpinari
dagokion
itzala?



Utarileko beherapenak eskaintzak ez dio onik egin. Juliri. Ber jostaludendak sekulako jendera sartu bai, baina bazterrak nahasi ondoren, erosi ezar gurti egin diote. Zer eraman dute onak?



ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN.
(ARGIA-ren debora-pasa gehigarritik hartua)



Si quieres participar en alguna de las secciones de la revista, esto es lo que tienes que hacer:

* Todos los trabajos deberán ir acompañados de la firma del autor (nombre y apellido) y su número de DNI.

* Los plazos de entrega de trabajos finalizarán un mes antes del fin del trimestre; este curso, a finales de Febrero y finales de Mayo, respectivamente.

* Los trabajos se enviarán a esta dirección:

*Hurtzaro Ikastola
TXINPART ALDIZKARIA sekzioarako
Elorrondo z/g, 20180 Oiartzun*

Otra opción será depositarlos en el buzón de la Ikastola.

